

Zumediaren Eskolaz Kanpoko Ekintzak

Jarraian pasatzen ditugu gure eskaintza
Astelehenetik ostegunera 15:40etatik 16:30etara
Ekintza hauek ez dira doakoak eta inskripzioen gutxiengo bat behar da
Prezioa izen emate kopuruaren araberakoa izango da.

Haur Hezkuntza: Izan artista, Dantzarekin jolasean, Yoga, Erraldoiak eta lego tailerra (Haur Hezkuntzako 2. mailatik aurrera) Lehen Hezkuntza: Antzerkia, Zirkoa, Yoga, Lego tailerra eta Mekanografia (6. maila)

Izan Artista

Haur hezkuntzako hurrekin arte plastikoen munduan murgilduko gara modu esperimentalean, psikomotrizitate fin, sormena eta irudimena landuz. Honetarako eskulanak, margoketa esperimentala, akuarelak, abstrakzioa, bolumena eta abar lantzeko ekintzak burutuko ditugu.



Dantzarekin jolasean

Euskal dantzak ikasiko dituzte, haien garapen fasea kontutan hartuta, adin honetan jolasak duen garrantzia ahaztu gabe. Beroketak eta erritmo jolasak egingo dituzte baita euskal dantzak ikasi ere.



Yoga

Ekintza honek gorputza eta emozioak kontrolatzen eta energia fisikoa ongi bideratzen lagunduko die. Hau guztia arnasketa, gorputz jarrera eta jolasen bitartez.



Erraldoiak

Ekintza honetan hurrek erraldoi bat dantzatzean ze sentitzen den ikus dezakete.




Antzerkia

Helburu nagusia hurren adierazteko gaitasuna bee atal guztietan lantzea da, hau da, ahozko adierazpena eta gorputza jarrera lantzea. Jolas dramatikoak, adierazpena lantzeko jolasak, antzerki obrak... egingo dituzte



LEGO tailerra

Tailer honetan eraikuntza teknika desberdinak erabiliz irudiak sortzen ikasiko dute.



Zirkoa

Ekintza honetan zirkoko hainbat teknika eta disziplinena ikasiko ditugu. Malabareak, akrobaziak, dantzak,... beti ere jolas, sormena eta partehartzearen bidez.



Mekanografia

6. mailakoentzat bakarrik, non teklatuari begiratu gabe hamar hatzekin idazten ikasiko duten, idazmen abiadura hobetuz.

